



2HI-002/13-P03 MEÑAKA

NIK, TOMÁS ORALLO QUIROGAK, EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO LURRALDE ANTOLAMENDURAKO BATZORDEAREN IDAZKARIAK

ZIURTATZEN DUT: Euskal Autonomia Erkidegoko Lurralde Antolamendurako Batzordeak, Gasteizen maiatzaren 22an egindako 2/2013 osoko bilkuran, besteak beste honako erabaki hau hartu zuela, bertaratutakoen aho batez eta, beraz, kideen gehiengo osoarekin:

I.- Lurralde-antolamenduaren arloan:

I. Meñakako udalerriko hiri-antolamendurako plan nagusian planteatutako lurralde-eredua balioestea, xedapen hauetan ezarritakoaren arabera: ekainaren 30eko 2/2006 Legea; lurzoruari eta hirigintzari buruzkoa; maiatzaren 31ko 4/1990 Legea, Euskal Herriko Lurralde Antolakuntzari buruzkoa; eta uztailaren 16ko 5/1993 Legea, Autonomi Elkarte Osorako Erakundeen eta Bertako Kondaira Lurraldeetako Foruzko Ihardutze Erakundeen arteko harremanei buruzko Legea aldatzekoa. Honela balioetsi da:

1. INGURUNE FISIKOA.

1.a) Lurraldearen antolamenduari buruzko artezpideetara egokitzea.

• Lurzoru urbanizaezinaren kategorizazioa

Lurzoru urbanizaezineko antolamendu-kategoriei eta erabilera- eta eraikuntza-araubideari dagokionez Plan Nagusian azaltzen den proposamenaren aldeko txostena egin da, proposamen hori bat datorrelako Lurralde-antolamenduari buruzko Artezpideetan ezarritako irizpideekin, baita Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legearen 31. artikuluan baratzezaintza edo abelazkuntzako ustiakuntza ekonomiko bati lotutako oin berriko etxebizitza eraikitzeke egintzen lizentziak eta agiriak emateari dagokionez ezarritakoarekin ere.

• Landa-nukleoak

- Emerando auzoan dagoen baserri multzoa Landa Nukleo gisa kalifikatzeko proposamenari dagokionez, kontrako irizpena eman da, baserri multzo horrek ez dituelako betetzen Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legearen 29. artikuluan eta Lege hori garatzen duten premiazko neurriei buruzko ekainaren 3ko 105/2008 Dekretuan ezarritako baldintzak.

1.b) EAEko Ibaien eta Erreken Ertzen Antolamendurako Lurraldearen Arloko Plana.

- Plangintza berriaren aldeko irizpena eman da, EAEko Ibaien eta Erreken Ertzen Antolamendurako Lurraldearen Arloko Planean (Isurialde kantauriarrean) ezarritako erabakiak betetzen dituelako.

- Nolanahi ere, zuzendu egin beharko da araudiaren 2.9.19 artikuluan lurzoru urbanizaezineko ibilguak babesteko mugetarako normalean ezartzen den 15 metroko zabalerrari dagokionez aipatzen dena. Lurraldearen Arloko Planean ezarritakoaren arabera, zabalera hori 30 metrokoa izango da 10 km²-tik gorako arro-gainazala duten tarteeetan; alderdi hori dokumentazio idatzian nahiz grafikoan bildu beharko da.



2. ESPAZIO LIBREEN SISTEMA OROKORRA.

Aldeko balioespena ematen zaio Espazio Libreen Sistema Orokorraren zonakatze orokorrari; izan ere, kalifikatutako gainazalak bermatu egiten du berdeguneen eta hiri barruko parkeen zuzkidura publikoa, 2/2006 Legeak galdaturikoa baita hori.

3. BIZITEGIETARAKO ETA EKONOMIA JARDUERETARAKO KOKALEKUAK.

3.a) Bizitegietarako lurzoruaren antolamendua. Lurralde-eredua eta bizitegietarako lurzoria kuantifikatzea

- Aldeko irizpena ematea Plan Nagusian aipatzen den bizitegietarako lurzoria kuantifikatzeari eta lurralde ereduari; izan ere, begietsi diren 86 etxebizitza berriren proposamena bat dator EAeko Lurralde Antolamendurako Artezpideetan ezarritako irizpideak aplikatzean lortzen diren emaitzekin.

3.c) Jarduera ekonomikoetarako lurzoruaren antolamendua.

Plan Orokorrak, lurzoria landa-izaerakoa izanik, jarduera ekonomikoetarako lurzorurik ez kalifikatzeko egiten duen proposamenaren aldeko irizpena ematea.

II.- Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko 2/2006 Legearen Lehen Xedapen Gehigarriaren 3. puntuan Batzorde honen gainean xedatutakoari dagokionez, txosten honetan jasotako baldintzak txertatu ostean, espedientea behin betiko onartu ahal izango da Batzorde honek berriz ere txostena egin behar izan gabe.

II.- Kultura Ondarearen arloan:

Kultura Ondareari dagokionez, Kultura Ondare Zuzendaritzak 2013ko martxoaren 5ean egindako txostenean biltzen diren erabaki lotesle hauek hartu beharko dira kontuan:

Otume jauregia Kultura Ondasun gisa kalifikatuta dago, Monumentuaren kategoriarekin, urtarrilaren 17ko 7/2006 Dekretu bidez (24. zenbakiko EHAA, otsailaren 3koa, ostirala).

Euskal Kultura Ondareari buruzko uztailaren 3ko 7/1990 Legearen 12.2 artikulua adierazten du ondasun bat kalifikatzeak zehazten duela kalifikazio horren ondoriozko babes-araubidea berehala eraginkorra dela. 7/1990 Legeak 28-1 artikuluan xedatutakoaren arabera, sailkatutako ondasun higiezinak zaindu beharko dira, Babes Araubidea eta hirigintza-plangintzako agiriak betez. Hirigintza-plangintzako agiriak bat etorri behar dute Babes Araubidearekin, eta Eusko Jaurlaritzak haien aldeko txostena egin behar du.

Horregatik, ezinbestekotzat hartzen dugu dokumentuan esanbidez adieraztea babes-araubide hori aplikatu behar dela, Jauregian egon litezkeen esku-hartzeen erregulazio zehatz gisa.

III.- Nekazaritzaren eta abeltzaintzaren alorrean

Nekazaritza eta Abeltzaintza Zuzendaritzak, 2013ko martxoaren 13ko txostenean, aldeko irizpena eman zuen, baina honako xedapen lotesle hauek betetzeko baldintzarekin:

- **Abeltzaintzako ustiategi berrien inguruko araudiaren aplikazioa**

Abeltzaintzako ustiategi berriei aplikatu beharreko araudi berria bildu beharko da HAPNan, eta 2.9.2 artikulua 5. puntuko edukia legedi berrira egokitu beharko da:



Abeltzaintzako ustiategi berriek indarrean dagoen araudia bete beharko dute. Gaur egun, honako hau da:

- Irailaren 22ko 515/2009 Dekretua, abeltzaintzako ustiategietako arau teknikoak, higieniko-sanitarioak eta ingurumenekoak ezartzen dituena.
- Martxoaren 9ko 165/1999 Dekretua, Euskal Herriko ingurugiroa babesteko legean jasotzen den jarduerarako lizentzia eskuratzetik salbuetsitako jardueren zerrenda finkatzen duena, jardueraren lizentzia behar ez duten ustiategietarako. Dekretu hori 515/2009 Dekretuak, irailaren 22koak, aldatu du (hirugarren xedapen gehigarria).

Lehendik badiren abeltzaintzako ustiategiei dagokien araudia aplikatzea:

- Lehendik zeuden abeltzaintzako ustiategiek, jardueraren lizentzia lortu nahi badute, 10 edo 15 urteko epea dute, kokatuta dauden biztanlegunearen tipologiaren arabera, irailaren 22ko 515/2009 Dekretuan ezarritako baldintzetara egokitzeko, eta ez zaizkie aplikatuko distantzien eta kokalekuaren inguruko arauak, aipatutako dekretuan ezartzen den bezala.

IV.- Uraren arloan:

Uraren Euskal Agentziak, 2013ko martxoaren 11n emandako txostenean, aldeko irizpena eman zuen, erabaki lotesle hauek betetzeko baldintzarekin:

1. Ezin izango da proposatutako bi sektore urbanizagarrietako bakar bat ere garatu, ez SR-1 (Telleri Laba), ezta SR-2 (Telleri Baserri) ere, harik eta bi sektore horien saneamendua eta hondakin-uren arazketa behar bezala konpondu arte, ahal bada memorian azaltzen diren baldintzak kontuan hartuta: udalerriko saneamendua Partzuergoko estolda orokorrekin lotzea eta hondakin-uren tratamendu egokia bermatu ahal izatea.
2. HAPN honen ondorioz sortzen den antolamendu berritik ondorioztatzen diren eta Jabari Publiko Hidraulikoa eraginpean hartzen duten edo horien zortasun- edo polizia-guneetan kokatzen diren jardunek URA Uraren Euskal Agentziaren aurretiko administrazio-baimena beharko dute. Baimen hori Kantauriko Mendebaldeko Arroen Bulegoan izapidetu beharko da.

V.- Bizkaiko Foru Aldundia:

Ezinbestekoa da Bizkaiko Foru Aldundiaren Kultura Ondare Zerbitzuak, Nekazaritza Zuzendaritza Nagusiak, Bide Azpiegituren Zuzendaritza Nagusiak eta Udal Harremanetarako eta Hirigintzarako Zuzendaritza Nagusiak emandako txostenetan bildutako erabaki lotesleak kontuan hartzea.

VI. Eskumeneko organora bidaltzea, espedientea behin betiko onartzeko, honako organo hauek egindako txostenak: Ingurumenaren Plangintza Zuzendaritzak egindakoa (I. eranskina); Etxebizitza Sailburuordetzak egindakoa (II. eranskina), Kultura Ondarearen Zuzendaritzak egindakoa (III. eranskina); Bizkaiko Foru Aldundiaren Kultura Ondarearen Zerbitzuak egindakoa (IV. eranskina); Bizkaiko Foru Aldundiaren Nekazaritza Zuzendaritza Nagusiak egindakoa (V. eranskina); Bizkaiko Foru Aldundiaren Bide Azpiegituren Zuzendaritzak egindakoa (VI. eranskina); Nekazaritza eta Abeltzaintza Zuzendaritzak egindakoa (VII. eranskina); URA Uraren Euskal Agentziak egindakoa (VIII. eranskina), eta Bizkaiko Foru Aldundiaren Bide Azpiegituren



EUSKAL HERRIKO LURRALDE ANTOLAKETAREN BATZORDEA
COMISION DE ORDENACION DEL TERRITORIO DEL PAIS VASCO

Zuzendaritza Nagusiak egindakoa (IX. eranskina). Txosten horiek guztiak ziurtagiri honekin batera bildu dira”.

Eta horrela jasota gera dadin, bilkura honi dagokion akta onetsi baino lehen, Gasteizen, 2013ko maiatzaren 23an agiri hau egin eta sinatu dut.

IDAZKARIA



Stua.: Tomás Orallo Quiroga